BESTELAKO XEDAPENAK

SEGURTASUN SAILA

4196

AKORDIOA, 2014ko urriaren 7koa, Segurtasuneko sailburuaren 2014ko abuztuaren 20ko Aginduz deitutako Ertzaintzako hauteskunde sindikaletarako eratutako Hauteskunde Batzordearena, hautagaien zerrendak aldarrikatzeko dena.

Ertzaintzako funtzionarioen ordezkari sindikalen hauteskundeak, Ertzaintzako Kontseiluaren osaketa eta erakunde sindikalei dagozkien ordezkariak hautatzeko bidea arautzen dituen martxoaren 16ko 50/1993 Dekretuaren 9. artikuluak ezarritakoaren arabera, Hauteskunde Batzordearen idazkariak, honako hau:

EGIAZTATZEN DU

Hauteskunde Batzordeak, 2014ko urriaren 7an eginiko bileran, hautagaien zerrenden aldarrikapena ertzain-etxeetan urriaren 9an argitaratuko direlako akordioa hartu duela.

Eta horrela erasota gera dadin eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadin, honako hau luzatzen dut, lehendakariaren oniritziaz.

Erandio, 2014ko urriaren 7a.

HAUTESKUNDE BATZORDEKO IDAZKARIA.

O.I. HAUTESKUNDE BATZORDEKO LEHENDAKARIA.